

HITZAURREA

ASKOTAN izan dut gogoia idatziz jartzeko Alexis Zorbaren –biziki maite nuèn langile zahar baten– hitzak eta egintzak.

Bidaia eta ametsak izan dira nire bizitzako ongile handienak. Oso jende gutxi, biziak nahiz hilak, izan ditut lagun nire borroketan. Alta, behar banitu aukeratu nire ariman lorratz sakonena utzi duten pertsonak, beharbada lau hauek aipatuko nituzke: Homero, Bergson, Nietzsche eta Zorba.

Horietatik lehena niretzat izan da nola begi lasai dirdiratsu bat, eguzkiaren begia bezalakoa, bazter guztiak argitu dizkidana bere bristada askatzailearekin; Bergsonen libaturik ezarri nau gaztetan torturatu nindutèn larrimin filosofiko askaezinetatik; Nietzschek beste larrimin batzuekin aberastu nau eta erakutsi dit nola bihurtu zoritxarra, nahigabea eta dudamuda, harrotasun; eta Zorbak irakatsi dit bizia maitatzen eta heriotzaren beldurrik ez izaten.

Baldin aukeratu beharko banu gaur mundu osoan gidari espiritual bakar bat –“guru” bat, Indian esaten duten bezala, edo “aita begiragarri” bat, Athos mendiko monjeek deitzen dioten bezala–, Zorba aukeratuko nuke, zalantzarik gabe.

Zeren Zorbak berekin baitzeukan tinta-xomorro batek behar duen guztia bere burua salbatzeko: begirada primitiboa, gezi baten antzera bere janaria goitik brauki harrapatzen dakiena; sorkuntzarako berezko sena, egunsenti bakoitzarekin berritua, gauza guztiak etengabe lehen aldiz bezala ikustera zaramatzana eta birjintasunez janzten dituen eguneroko elementu eternoak –haizea, itsasoa, emakumea, ogia–; eskuko irmotasuna, bihotzeko freskotasuna, bere arimaz trufatzeko ausardia, iduri baduela bere baitan indar bat arima bera baino handiagokoa; eta, azkenik, irri garden basatia, gizakiaren errai barrenenak baino soko-nagoko iturri batetik sortua, Zorbaren bular jada zahartuaren barnetik une giltzarrietan askatzaile jaikitzen zena zalapartaka, eta halako indarrez lehertzen zena non gauza baitzen errausteko –eta errausten ere zituena– gizaki beldurti dohakabeak bere mundualdi hau gehiegizko minik gabe igarotzeko eraiki dituen barrikada suerte guztiak –moral, erlijioa, aberria...

Ikusten dudalarik nolako janaria eman dioten hainbeste urtez liburuek eta irakasleek nire arima hamikatuari, eta zer adimen lehoikara eman zidan jatera Zorbak hilabete pixar batzuetan, lanak ditut amorrua eta tristura hezteko. Errekaratua zegoen nire bizitza zeren zorteak nahi izan baitzuen beranduegi ezagut nezala “aita begiragarri” hori, jadanik deus gutxi zegoenean salbatzekorik ni baitan. Ziaboga handia, errotiko ikuspegi-aldaketa, “sutea” eta “erreberritzea” ez ziren obratu. Beranduegi zen horretarako. Eta, hala, Zorba bihurtu beharrean nire bizitza erregelatzeko autoritate-eredu jaso bat, literatur gai bat izatera endekatu zen, ezertarako ez zena salbu orri parrasta bat tintaz belzteko, ondikoz.

Bizitza arte bihurtzeko pribilegio triste hau hondamendirako bidea izaten da arima haragijale askorentzat. Zeren, bide horretatik, pasio kartsuak ihesbidea aurkitzen du, bularretik ateratzen da, eta arimak arindu bat hartzen du, ez da kixkaltzen gehiago, ez dauka gehiago premiarik buruz buru borrokatzeko, zuzenean

parte hartuz bizitzan edo ekintzan. Hori egin ordez, atseginekin ikusten du bere pasio suharra airean gora joaten ezerezean suntsitzera, kea kiribiletan bezala.

Bizkitartean, arimak ez bakarrik atsegin hartzen du arindu horrekin, baina harrotu ere egiten da sinisturik balentria handi bat ari dela obratzen: eternitate bihurtzea, bere ustez, istant iragankor eta ordezkazina –bakarra denbora infinituan haragia eta odola daukana. Eta, hain zuzen ere, horrelaxe endekatu zen nire eskuetan Zorba, haragiz eta hezurrez hain betea zena, paper eta tinta bihurtzeraino.

Bazuen aspaldi Zorbaren istorioa gorpuzten hasia zela ni baitan, nik nahi izan gabe, are nire gogoaz kontra ere. Aldaketa sekretu hori nire erraietan hasi zen obratzen: hasieran musika-harrabots bat izan zen, plazer eta ondoez sukartsu bat, nire zainetako odoletara gorpuzt arrotz bat sartu balitz bezala eta nire organismoa borrokan ari bailitzan hura asimilazio bidez menderatu eta ezeztatzeko. Eta nukleo horren inguruan hitzak sortzen hasi ziren, hura inguratzen eta elikatzen, iduri enbrioia bat. Oroitzapen ilunak argitzen hasi ziren, poz eta nahigabe hortziak azalera jalgitzen, bizitzak gora egin zuen aire meheago batera, eta Zorba ipuin bihurtu zen.

Artean ez nekien zer itxura eman Zorbaren ipuin horri: eleberri, poema, *Mila Gau eta Bat Gehiagoko* fantasiako ipuin korapilatsu, ala beren horretan plain-plaina jasoko ote nituen Kretako hondartza batean esan zizkidàn gauzak noiz eta bazter hartan bizi izan baikinene lurra zulatzen, lignitoa aurkitzeko ahalginetan. Guk biok ondo genekien xede praktikoa hori jendearen begietara hautsa botatzeko modu bat baino ez zela; berantetsirik egoten ginen biok noiz etzango ote zen eguzkia eta bukatuko ote zuten langileek beren lanaldia, tenore horretan hondartzan etzateko eta, gure otordu xume goxoa janez eta gure Kretako ardo gogorra edanez, solasean hasteko.

Gehienetan nik ez nuen ezer esaten. Zer esan diezaioke alabaina “intelektual” batek herensuge bati? Adi-adi egoten nintzen entzuten nola aletzen zituen bere istorioak Olinpo mendiko bere herriaz, elurraz, otsoez, *komitadjiez*¹, Santa Sofiaz, lignitoaz, magnesitaz, emakumeez, Jainkoaz, aberriaz eta heriotzaz... eta, bat-batean, itotzen zenean eta hitzekin aski ez zuenean, jauzian zutituko zen hondartzako hartxintzar lodien gainean eta dantzari lotuko zen.

Adinetan sartua, tente eta hezurtsu, burua pixka bat atzera botata, begi biribiltxoak txori batenak iduri, dantzan eta ajuika abiatuko zen, oinzola zailduekin hondartza zapatuz eta kresal-zipriztinak igorritz bere aurpegira.

Egin banio jaramon haren ahotsari –haren ahotsari ez: haren deiadarrari–, nire bizitza gauza duin bat bihurtu ahal izango zen: odolez, haragiz eta hezurrez biziko nukeen orain haxix-laino batean bezala turditua hausnartzen dudana eta paper eta idazluma bidez egiten saiatzen naizena.

Baina ez nintzen ausartu. Zorba dantzan ikusiko nuen gauaren erdian, zaldi baten pare irrintzika, deiadarrez adierazten bota nezala gainetik neronek ere zuhurtasunaren eta errutinaren masakor eroso eta lot nendila berarekin bidaia handietara... baina ni hantxe egoten nintzen geldi, dardaraka.

Hamaika aldiz lotsatu naiz nire denboran ikusiz nire arima ez zela ausartzen egitera erotasun gorenak –bizitzaren muinak– egitea eskatzen zidana. Baina sekula ez nintzen hainbeste lotsatu nire arimaz nola Zorbaren aurrean.

GOIZ batez, egunsentian, elkarrengandik banandu ginen. Ni berriro abiatu nintzen atzerrira, jakin-gosearen eritasun faustianoak

¹ *Komitadji*: Gerrillari, bereziki Inperio Otomanoaren kontra aritutakoak.

jota bainengoen erremediorik gabe. Zorba iparralderantz joan zen eta Serbian finkatu, Skopje ondoko mendi batean, non, diotenez, magnesita zain aberats bat aurkitu zuen; ilusitu zituen aberats ale batzuk, erosi zituen tresnak, kontratatu langileak, eta berriro hasi zen tunelak egiten lurlean. Haitzak zapartarazi zituen, bideak egin, ura ekarri, etxe bat eraiki, Liuba izeneko alargun alai eder batekin ezkondu zen –xahartua eta dirutsua oraindik–, eta haur bat ekarri zuten elkarrekin.

Egun batez, Berlingen, telegrama bat jaso nuen: “Harri berde eder bat aurkitu diat. Hator fite. Zorba”.

Alemania gosete haundiaren menpean zegoen garaia zen. Markoa hain zolara jausia zegoen non erosketa txikiena egiteko ere milioiak karreatu behar izaten ziren zaku batean; eta jatatxe batera joaten zinenean, paperezko diruz hanpatutako zorroa ireki eta mahai gainean hustuta ordaintzen zenuen kontua. Izan ziren egunak non hamar mila milioi marko behar izan baitziren posta zigilu bat erosteko.

Bazterretan dena zen gose, hotz, jaka higatu eta oinetako porroskatu; alemanen behialako masail gorriak zurbilduak eta sartuak zeuden orain. Udazkeneko haizea jaikitzen zenean jendea horbelaren pare erortzen zen karriketan. Haurrei kautxo puxkak ematen zizkieten mastekatzera, haiekin nolabait tronpatu nahian, negarrik egin ez zezaten. Gauaz poliziak guardia egiten zuen ibaiko zubietan, miseria hari buru eman nahi zioten amak ez zitezen uretara saltatu umeak besoetan hartuta.

Negua zen, elurra ari zuen. Nire aldameneko gelan literatura txinatarreko irakasle aleman bat, bere burua berotu beharrez, pintzel luze bat eskura hartu eta, Ekialde Urruneko usadio nekeari jarraituz, Txinako poema zaharrak edo Konfuzioren sententziaren bat kopiatzen saiatzen zen. Pintzel muturrak, ukondo jasoak eta jakintsuaren bihotzak triangelu bat osatu behar zuten.

“Minutu gutxiren buruan”, esan ohi zidan kontentuz, “be-sapetik izerditan hasten naiz, eta holaxe berotzen naiz”.

Egun negargarri horietan heldu zitzaidan Zorbaren telegrama. Hasieran koleran sartu nintzen. Gizakiak milioika doilortzen eta flakatzen ari ziren beren gorputz-arimak bazkatzeko ogi papur bat ere ezin bilduz, eta hara non heltzen zaidan telegrama bat eskatuz milaka kilometroko bideari lot nendila harri berde eder bat ikusteko! “Deabruak eraman dezala edertasuna!”, egin nuen neure artean. “Zeren edertasuna bihotzgabea baita eta gizakiaren oinazea ez baitu kondatzen bi arditendako”.

Baina, bat-batean, izutu nintzen. Haserrea eztitzearekin, ikara batek jo ninduen, eta sentitu nuen Zorbaren dei krudel horrek ni baitako beste dei krudel bati erantzuten ziola. Nire barranean txori basati batek hegoak zabaldu zituen, airatzeko prest.

Baina ez nintzen partitu. Berriz ere, ez nintzen ausartu. Ez nuen trena hartu, ene baitan jaikitako deiadar jainkozko eta salbaia ez nuen obeditu, ez nuen egitate bipil eta zentzugabe bat obratu. Arrazoiaren ahots zuhur, hotz eta gizatiarra obeditu nuen. Beraz, luma hartu eta Zorbari nire jokamoldearen argitasunak idatzi nizkion.

Eta harek honela erantzun zidan:

“Hi haiz izateko tinta-xomorroa, nagusi, barkamendurekin. Hire bizi guztian behin sikiera harri berde eder bat ikusteko aukera ematen zaik, eta hik errefusatu, haizen bezalako tristea. Brintxua, inoiz gertatu zaidak, beste zereginik izan ez eta, neure buruari galdetzea: ‘Ba ote da infernurik?’. Atzo, ordea, hire gutuna jaso eta segido esan nian: ‘Ez da dudarik, derrigor izan behar du infernua, honelako tinta-xomorro ale batzuentzat propio asmatua!’”.

OROITZAPENAK azaleratzen hasi dira, elkarri pusaka, presatuak. Heldu da ordua gauzak xuxen ezartzeko. Zorbaren hitzak eta

lanak hasieratik kontatzeko. Harekin ikustekorik izan zuten gertakari ezdeusenak ere ñirñirka ari dira une honetan ene buruan, argi-argi, hain zauliak eta prezagarriak nola arrain koloretsuak udako itsaso garden batean. Harenik deus ez da hil ni baitan, iduri luke Zorbak ukitu zuen guztia hilezin bihurtu dela, eta, halere, egun hauetan aztoratuta nago bat-bateko kezka batekin: badira bi urte ez dudala jaso haren gutunik, honezkero hirurogeita hamar urtetik gora izan behar ditu, beharbada arriskuan dago. Dudarik gabe, arriskuan dago, bestela ez dago ulertzerik nitaz jabetu den kar hau zeinak pusatzen nauen berriro biltzera harekin zerikusirik zeukan guztia, gogora ekartzera esan zizkidàn guztiak eta egin zuen guztia, eta dena ezartzera paperean iltzaturik, suntsiduratik begiratzeko. Heriotza –haren heriotza– exorzizatu nahi izango banu bezala. Idazten ari naizen hau ez da, ni beldur, liburu bat: requiem bat da.

Baditu –orain ikusten dut– requiem baten ezaugarri guztiak. Gari-ale egosizko *kolivaz*² beteriko azpil apaindua ausarki ihintatua dago azukre hautsez, eta gaineane, kanelaz eta almendraz idatzia, ALEXIS ZORBA izena ageri du. So egiten diot izenari, eta hor jaikitzen da kolpez nire aurrean Kretako itsaso anil kolorekoa, eta bere urpetan murgiltzen zait adimen guztia. Hitzak, irriak, dantzak, mozkorraldiak, kezkak, ilunabarreko solasaldi eztiak, begi erabat biribil haiek nigan iltzatuak xamurtasunez eta erdeinuz, iduri niri etengabe ongi etorri egiten, iduri niri etengabe adio esaten –betiko.

Eta nola hileta-azpil apaindu bati behatzen diogunean beste oroitzapen batzuk multzoka zintzilikatzen zaizkigun, saguzarrek bihotzeko hormetan bezala, hala-hala, nik nahi gabetanik, hasieratik bertatik beste itzal maitatu bat nahasi zen Zorbaren

² *Koliva*: Eliza ortodoxoan hilen oroimenezko elizkizunetan ofrendatzat erabiltzen den ore bat, gari ale egosiz egina eta biziki dekoratua.

itzalarekin, eta itzal horren atzean, uste gaberik, beste bat agertu zen oraino: Zorbak eta biok Kretako hondartza batean, Libiako itsasoan, behiala ezagutu genuen emakume porroskatu, mila al-diz pintarratu eta musukatuarena...

Dударик gabe, gizakiaren bihotza odolez betetako putzu itxi bat da. Irekitzen denean, haraxe doaz korrika, edatera eta berpiztera, gure inguruan etengabe emendatuz doazen eta airea iluntzen duten itzal egarritu kontsolaezin guztiak. Lasterka doaz gure bihotzeko odola edatera, baitakite beste berpizkundetik ez dagoela. Eta, horien guztien artean, gaur Zorba doa beste guztien aurretik lasterka bere urrats luzeekin, eta bazterrera bultzatzen ditu beste itzal guztiak, badakielako gaurko hiletak bere alde direla.

*Eman diezaiogun gure odola, beraz, berpiztu dadin. Egin
ditzagun gure ahal guztiak bizi dadin pixka bat gehiago
alimaleko tripontzi, zurrutari, langile porrokatu,
emaztekari eta arlote harrigarri hori.
Nire bizitza osoan sekula ezagutu
dudan arima handiena,
gorputz ziurrena,
oihu libreena.*